

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKATETXEAREN IZENA	OLABIDE IKASTOLA						2017-2018		
ARLOA / GAIA	M A T E M A T I K A						DATA	2017-09-05	
ETAPA - MAILA	1 DBH		2 DBH		3 DBH	X	4 DBH	1 BATX.	2 BATX.

1	HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK
----------	--

- | | |
|--|---|
| <p>1. Segiden ezaugarriak identifikatzea eta haien adierazpen aljebraikoak idaztea, arrazoiketa matematikoa baliatuz, eta, alderantziz, informazio berria sortzea segiden adierazpen aljebraikoak eraldatuz; hori guztia norberaren lana balioetsiz eta egindako akatsen zuzenketatik hobekuntzarako erabakiak hartuz.</p> <p>2. Banaketa estatistiko bati dagozkion zentralizazio-, posizio- eta sakabanatze-parametroak kalkulatuzea, maiztasun-taulak eta datu-zerrendak baliatuz.</p> <p>3. Banaketa estatistiko bati dagokion grafikoa identifikatzea edo sortzea, parametro estatistikoak aintzat hartuz, eta parametro horien baitan, aurrez emandako grafikoak interpretatzea.</p> <p>4. Zenbakien ezaugarriak arakatzea eta ziurtatzea, behaketan eta galdera gidatuetan oinarrituta, eta zenbaki horiek matematikaz gaindiko alorretan egindako ekarpena adieraztea eta haren baliagarritasuna balioestea.</p> <p>5. Berreketa eta erroketa alderantzizko eragiketa gisa erlazonatzea, eta haiekin eragiketak egitea, adierazpenak eraldatuz.</p> <p>6. Polinomioak laburtu eragiketen propietateak baliatuz eta haiekin oinarrizko eragiketak egin, zuzentze-prozesuari behar duen arreta eta garrantzia eskainita.</p> <p>7. Bi magnituderen arteko erlazio zehatzak funtzioen bidez adierazi eta adierazpen moldeen arteko eraldaketak egin eta lehenengo mailako ekuazioak ebatzi, grafikoki eta aljebraikoki.</p> | <p>8. Problema ebazteko urratsetan modeloen erabilgarritasuna balioetsi eta, modelo egokiak baliatuz, beste zientzietako erlazioak interpretatu eta kontaktarekin lotutako galdera zehatzei erantzun, haien onargarritasuna balioetsita.</p> <p>9. Norberak sortutako problema ebazteko ereduaren arabera, eguneroko bizitzako galderei eta zereginen aurre egin, problema ebazteko teknika zehatzak baliatuz eta egiteko horretan irmoki jokatu.</p> <p>10. Funtzioei buruzko hitzez zein grafikoki emandako deskribapenetatik abiatuz, deskribapen moldeak eraldatu, komunikazio-ekintzarako hizkuntza matematiko egokia baliatuz.</p> <p>11. Funtzio koadratikoaren ezaugarrien aldaketan eragiten duten faktoreak identifikatu eta, parametroak egoki bereiziz eta definituz, propietate berriak ondorioztatu irudi estatiko zein dinamikoak baliatuz.</p> <p>12. Bigarren mailako ekuazioen ebazpenarekin erlazonatutako problema ebatzi.</p> <p>13. Zirkunferentziaren elementuak identifikatu eta neurtu eta, propietateak baliatuz, problema ebatzi.</p> <p>14. Elementu geometriko lau zein espazialean oinarrituta, elementu horien ezaugarri eta neurriari buruzko propietateak formulatu eta ziurtatu, irudi estatiko zein dinamikoak baliatuz.</p> |
|--|---|

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA			
----------	--------------------------------	--	--	--

ORD.	1. ebaluazioa	ORD.	2. ebaluazioa	ORD.	3. ebaluazioa
8	Segidak eta progresioak (1)	10	Polinomioak (6)	15	Funtzioak (koadratikoa) (10,11)
6	Estatistika (2, 3)	10	Funtzioak (7)	10	Bigarren mailako ekuazioak (12)
2	Zenbakiak (4)	6	Problema ebazpena (8, 9)	10	Geometria (zirkunf. eta zirk.) (13,14)
8	Berreketa eta erroketen propiet. (5)				

3	METODOLOGIA
----------	--------------------

Ebaluaketa bakoitzean unitate didaktiko bat lantzen dugu. Unitate bakoitza 3 fasetan banatzen delarik: Hasiera fasea, garapen fasea eta amaierako fasea. Hasiera fasean zer ikasiko dugun eta zertarako erabiltzen den tratatzen dugu, bizitza errealeko egoera bat planteatuz. Garapen fasean eduki-baliabideak eskuratzeko azalpen eta ariketak lantzen ditugu eta bukatzean hasieran planteaturiko egoerari aurre egiten diogu. Amaierako fasean antzeko egoera baten aurrean nola jokatu aztertuko dugu.

4	BAILABIDEAK	
----------	--------------------	--

TESTU LIBURUA:	EDITORIALA:
MATEMATIKA 3 (Bigarren Hezkuntza)	ELKAR

5	EBALUAZIO SISTEMA						
KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK							
<p>Unitate didaktiko bakoitzean eduki-baliabideak neurtzeko bi azterketa egingo ditugu.</p> <p>Unitatea bukatzean konpetentziak neurtzeko beste azterketa bat egingo dugu, egoera berri bati erantzuna eman beharko diotelarik bertan.</p> <p>Jarrerak %20ko eragina izango du ebaluazioaren azkenengo notan.</p>							
KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA		EDUKI-BALIABIDEAK	% 50	KONPETENTZIAK	% 30	JARRERAK	% 20

6	BERRESKURAPEN SISTEMA					
<p>Unitate didaktiko bakoitzean, suspenditutako eduki-baliabideak ebaluaketaren bukaeran errekuperatu ahalko dira azterketa baten bidez (errekuperaketa).</p> <p>Errekuperaketa azterketa hori ere suspenditzekotan, ekainean, kurtsoan zehar gainditu gabeko unitate didaktikoen eduki-baliabideen errekuperaketa egingo da (nahikotasuna).</p> <p>Nahikotasunean unitate didaktikoren bat suspenditzen bada, ez-ohiko deialdian berreskuratu ahalko da. Ez-ohiko deialdiko azterketa suspenditzen bada, kurtso horretan irakasgaia suspendituztat geldituko da.</p> <p>Promoziatzen duten ikasleak, baina matematika suspendituta, ondorengo aukerak izango dituzte hurrengo urtean gainditzeko (hauetako bat gaindituta, aurreko urteko matematika gaindituko luketelarik):</p> <p>Urrian azterketa bat egin eta gaindituz, lehenengo ebaluaketa gaindituz, Aste Santuko oporrak hartu baino lehen beste ohiko azterketa bat gaindituz, ekainean ez-ohiko deialdiko azterketa gaindituz.</p>						